



## ARRATIA-NERBIOIKO LEHEN SEKTOREA 2014KO EKINTZA-PLANA ERATZEN HASI DA

# “Gorbeialde” Landa Garapenerako Elkartea dagoeneko hasia da eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenekin, baso ustiatzaileekin, elikagaien enprekin, udalekin eta udalerriez gaindiko erakundeekin 2014ko Ekintza Plana prestatzen.

# Planean sektorearen lehentasunak finkatuko dituzte, eta garatu beharreko programak eta jarduerak zehaztuko dituzte.

GORBEIALDEA. (2013-07-03)- Arrakasta lortzeko gakoa elkartzea eta parte hartzea direla jabetuta, “Gorbeialde” Landa Garapenerako Elkartea (Arakaldo, Arrankudiaga, Igorre, Urduña, Dima, Zeberio, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Lemoa, Orozko, Otxandio, Ubide eta Zeanuriko udalek osatutakoa) ekimen berritzailea abiarazi du lehen sektoreko eragileak eurak izan daitezen lehen sektorearen 2014ko Ekintza Planaren eratzailak.

Ildo horretan, nekazariak, abeltzainak, baso ustiatzaileak, elkartea, nekazaritzako elikagaien enpresa txikiak, tokiko erakundeak (udalak) eta udalerriaz gaindikoak (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia), denak uztartuta lanean hasi dira, Bingen Larizgoitia “Gorbeialde”ko gerenteak esan duenez, «guztion ekarpenekin sektorearen benetako beharrianak aintzat hartu eta eragile guztien kezka eta arazoei erantzuneko dien kudeaketa-plana eratzeko». Eta azpimarratu du sektoreko eragileen euren esperientzia funtsezkoa izango dela «gaur egungo plangintza hobetzeko eta sektorearen garabideetan sakontzeko».

Izan ere, “Gorbeialde” Landa Garapenerako Elkartea bere kideei -eskualdeko udalei, lehen sektoreko elkartei eta arloko eragileei- ematen dien zerbitzuei buruzko barne hausnarketa prozesu baten ondorioz sortu da urteko ekintzak planifikatzeko sistema berri hau.

Zerbitzu horiek hobetzeko asmoz, kudeaketa-sistema berriaren barruan tresna berriak eta parte-hartze foroak prestatu dituzte, sektoreko eragileek izan ditzaten informazioa konpartitzeko eta euren iritzia plazaratzeko bideak, eta, azken finean, “Gorbeialde”ren urteko ekintza-planaren eraketan euren ekarpenak egiteko aukera.

Diagnosi foroak

Kudeaketa-sistema berri honen ardatza lehen sektoreko mahai teknikoa da. Eskualdeko azpisektore guztiek -nekazaritza, abeltzaintza, nekazaritzako elikagaien industria, basogintza, abere arrazen elkartea, udalerrietako abeltzainen elkartea eta udalak- izango dituzte ordezkariak mahai sektorial horretan, eta berak izango du, beste eskumen batzuen artean, urteko ekintza plana zehazteko ardura ere. Horrela ba, ekainean zehar ekimena aurkezteko batzarrak egin dituzte azpisektore guztietan, eta bide batez aprobetxatu egin dute azpisektore bakoitzean ordezkarien aukeraketa abiarazteko eta eragileen iritzia batu dituzte mahai teknikora eramateko.

Komunikazio Saila